

# 2023-2024 IKASTURTERAKO BEKAK, LAGUNTZAK ETA SOROSPENAK

EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO IKASTETXE BAIMENDUETAN IKASKETAK EGITEN ARI DIREN UNIBERTSITATEZ KANPOKO IKASLEEI ZUZENDUA.

2023-2024KO DEIALDIA: Hezkuntza Sailburuaren Agindua

Eskatzeko epea: 2023ko uztailaren 18tik irailaren 30era

Eskabidea on-line helbide elektroniko honetan: [euskadi.eus/unibertsitateaz-kanpoko-bekak](http://euskadi.eus/unibertsitateaz-kanpoko-bekak)

## BEKA ETA DIRU-LAGUNTZEN ZENBATEKOAK ETA MOTAK I. KAPITULUA

Haur Hezkuntza, Lehen Hezkuntza, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza eta Musika eta Dantzako oinarrizko ikasketak egiten dituzten ikasleentzat.

**Ikasmaterialetarako:** diru-laguntza hau liburuak erostera zuzenduta dago.

Haur Hezkuntza (2. zikloa)	78 €
Ikastetxe Publikoetako Lehen Hezkuntzako lehen eta bigarren maila	38 €
Ikastetxe Publikoetako Lehen Hezkuntzako 3., 4., 5. eta 6. Maila	50 €
Lehen Hezkuntza	117 €
Ikastetxe Publikoetako (Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako lehen eta bigarren maila)	60 €
Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza eta Musika eta Dantzako oinarrizko ikasketa	159 €

**Bazkariak ordaintzeko:** etxetik kanpo bazkaldu behar duten ikasleentzat, (Haur Hezkuntzako 1. zikloko bi urteko gela, Haur Hezkuntzako 2. zikloa, Lehen Hezkuntza eta Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzakoentzat). Diru-laguntzaren gehienezko zenbatekoa **818,80 €**

**Kuota:** Haur Hezkuntzako 1. zikloko eskola-kuota ordaintzen laguntzeko.

- 0 eta urte 1eko haurrentzat. Diru-laguntza, gehienez ere, **hileko 90 €** izango da.

## BEKA ETA DIRU-LAGUNTZEN ZENBATEKOAK ETA MOTAK II. KAPITULUA

Batxilergoa, Oinarrizko Lanbide Heziketa, Erdi-mailakoa edota Goi-Mailakoa, Musikako eta Dantzako Ikasketa Profesionalak, Arte Plastikoak eta Diseinuko Heziketa Zikloak, Kirol-Irakaskuntzak, eta Hizkuntzako ikasketak egiten dituzten ikasleentzako osagaiak..

Oinarrizko bekaren osagaia: 300 €

Oinarrizko Mailako Heziketa Zikloak egiten dituzten bekadunen kasuan, zenbateko hori **350 eurokoa** izango da. Osagai hau bateraezina da ikaslearen familia-errentari lotutako osagaiarekin.

Zenbateko osagarria osagaia: 60 €

Batxilergoa, Lanbide Heziketa Erdi-Mailakoa edota Goi-Mailakoa, Musikako eta Dantzako Ikasketa Profesionalak, Arte Plastikoak eta Diseinuko Heziketa Zikloak, Kirol-Irakaskuntzak Ikasketak egiten dituzten ikasleentzako osagaiak.

Ikaslearen familia-errentari lotutako osagaia: 1.700 €

Ikasturtean zehar ikaslearen egoitzari lotutako osagaia: 2.500 €

Aprobetxamendu akademikoari lotutako osagaia: Ikaslearen batez besteko nota	Zenbatekoa
8,00 eta 8,49 puntu artean	50 €
8,50 eta 8,99 puntu artean	75 €
9,00 eta 9,49 puntu artean	100 €
9,50 puntu edo gehiago	125 €

Osagai hau emateko, aurreko ikastuteko batez besteko nota hartuko da kontuan, eta ikasketarik egin Gabe ikasturte bat galdu izanaren kasuan, egindako azken ikasturteko batez besteko nota hartuko da kontuan.

## IKASKETA BALDINTZAK II. KAPITULUA

- Ikastaroa errepikatzen ez aritzea
- Batxilergoko lehen mailako eta goi-mailako ikasketetako eskatzaileentzat, ikasketa horiek egiteko gaitzen dituen ikasturtean 5 puntuko batez besteko nota lortu izana.
- Goi-mailako irakaskuntzen bigarren kurtsoko eskatzaileek gutxienez 2022-23 ikasturtean egindako ikasketen % 85 gainditu beharko dute.

**Berariazko hezkuntza-laguntza behar duten ikasleak:** kolektibo horri dagozkion laguntzak eta sorospenak Deialdiaren aginduaren 22. artikulua.

## EKONOMIA-BALDINTZAK (2022 URTEA)

**Gainditu behar ez diren ondare-mugak**

- Hiri finkak: 42.900 € (ohizko etxebizitza salbu).
- Landa finkak: 13.300 €
- Balare higigarriak: 1.700 € etekinen muga.
- Jarduera ekonomikoak: 155.500 € arteko fakturazio bolumena.

Gainditu ezin diren errenta-mugak (€):

FAMILIAKO KIDEAK GUZTIRA	1. ERRENTA-MUGA	2. ERRENTA-MUGA	3. ERRENTA-MUGA	4. ERRENTA-MUGA
1	8.871	11.937	13.236	14.826
2	13.306	19.444	22.594	25.308
3	17.742	25.534	30.668	34.352
4	22.177	30.287	36.421	40.796
5	25.726	34.370	40.708	45.598
6	29.274	38.313	43.945	49.224
7	32.822	42.041	47.146	52.810
8	36.371	45.744	50.333	56.380
+1	+3.548	+3.672	+3.181	+3.562

### I. Kapituluko irakazkuntzak

- Haur Hezkuntza 1. zikloko ikasmailan, familia-errentak ezin izango du gainditu 1. Errenta-muga.

- Haur Hezkuntza 2. zikloko ikasmailan, familia-errentak ezin izango du gainditu 2. Errenta-muga.

- Gainerako ikasmilakoek:

\* Ikasmaterialetan osagaia jasotzeko, familia-errentak ezin izango du gainditu 4. Errenta-muga.

\* Bazkariak ordaintzeko osagaia jasotzeko, familia-errentak ezin izango du gainditu 2. Errenta-muga.

### II. Kapituluko irakazkuntzak

- Ikaslearen familia-errentari lotutako osagaia lortzeko, familia-errentak ezin izango du gainditu 1. Errenta-muga

- Bizilekuari lotutako osagaia eta zenbateko osagarria osagaia lortzeko, familia-errentak ezin izango du gainditu

**3. Errenta-muga.**

- Oinarrizko bekaren osagaia eta errendimendu akademikoari lotutako osagaia lortzeko, familia-errentak ezin izango du gainditu **4. Errenta-muga.**

### Berariazko hezkuntza-laguntza behar duten ikasleentzako laguntzak eta sorospenak:

Gastu gehigarri orokorretarako 400 euroko sorospena emateko, ez da kontuan hartuko ez errenta, ez familiaren ondarea. Laguntzak emateko, familia-errentak ezin izango du gainditu **2. Errenta-muga.**

### FAMILIA ERRENTAREN KALKULUA:

ZERGA OINARRI OROKORRA + AURREZKIAREN ZERGA OINARRIA – KUOTA LIKIDOA +  
+ PFEZ aren aitortpenen sartzan ez diren diru-sarrerak eta laguntzak

**Aplika daitezkeen kenkariak:**

- 500 €, eskatzailea guraso bakarreko familia batekoa izateagatik.
- Familiaren errentaren %20, eskatzailea umezurtz absolutua eta 25 urtetik beherako denean.
- Sostengatzaile nagusiak ez diren familiako edozein kide konputagarri emandako diru-sarreraren % 50.
- 525 €familiaren etxean bizi den anai-arreba bakoitzeko, eskatzailea barne, kategoria orokorreko familia ugariak direnean, eta 800 €kategoria berezikoak direnean. 22. artikuluan zerrendatutako hezkuntza-laguntzaren berariazko premia duten ikasleen kasuan, neba-arreba bakoitzeko, eskatzailea barne, 2.000 €-koa izango da kenkaria
- 1.811 € % 33ko edo gehiagoko desgaitasuna duen anai-arreba bakoitzeko, eskatzailea barne, eta 2.881 €, desgaitasuna % 65koa edo handiagoa bada. 22. artikuluan zerrendatutako ikasleen kasuan, kenkaria 4.000 € izango da % 33ko edo gehiagoko desgaitasuna duen anai-arreba bakoitzeko, eskatzailea barne.
- 1.176 € unibertsitate-ikasketak egiten ari den seme-alaba bakoitzeko, unibertsitate-ikasketak direla-eta familiaren bizilekutik kanpo bi ikasle edo gehiago bizi badira.

Agiri bidez egiaztatu ezean, ez dira kontuan hartuko egoera horiek.